



# NON BILATU MEDIKAMENTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

## AURKIBIDEA


- ▶ SARRERA
- ▶ AURKIKUNTZA TRESNA/DISCOVERY TOOLS
- ▶ POINT OF CARE PLATAFORMAK: UpToDate, DynaMed
- ▶ METABILATZAILEAK: ClinicalKey, ACCESSSSS, TripPro
- ▶ DATU-BASEAK
  - Berrikuspen sistematikoak: Cochrane Library, Epistemonikos, PROSPERO
  - Beste batzuk: Micromedex, PubMed, Embase, CINAHL
- ▶ ESTEKA INTERESGARRIAK, sarbide librekoak



Medikamentuei buruzko informazio ona izatea funtsezkoa da medikuntzan jarduteko. Informazio asko dago eskuragarri, eta horrek zaildu egin dezake informazio-iturri zehatzak, eguneratuak, osoak eta ebidentzian oinarritutakoak identifikatzea<sup>1</sup>.

Ebidentziaren bilaketarako metodo baliagarri bat Straus eta Haynes-ek proposatutakoa da: ebidentzia onenak aurkitzeko erabili behar ditugun iturriak haien garrantziaren arabera sailkatzea. Proposamen horrek, zeina Haynes-en piramide gisa ezagutzen baita (ikus 1. irudia), bost mailatako hierarkia bat ezartzen du, informazio biomedikoa aurkezteko moduak biltzen dituena: azterlanak, berrikuspen sistematikoak, ebidentzian oinarritutako gomendioak (praktika klinikoaren gidak), laburpen sintetizatuak eta medikamentuak preskribatzen laguntzeko sistema informatikoak, historia klinikoan integratuak<sup>2</sup>. Maila bakoitza beheko mailetatik abiatuta eraikitzen da, eta informazio baliagarriagoa ematen du erabaki klinikoak hartzen laguntzeko<sup>3</sup>. Hau da, gure kontsulta ebazteko, goiko mailan bila dezakegu, eta, emaitza negatiboa edo desegokia bada, hurrengo mailara jaitsiko gara (ebidentzian oinarritutako liburuak edo argitalpenak, hala nola praktika klinikoko gidaliburuak), eta horrela, behin eta berriz, harik eta erantzun egoki bat aurkitzen dugun arte<sup>2</sup>.

## 1. irudia. Haynes-en piramidea



Evid Based Med. 2016;21;(4):123-125tik moldatuta eta <https://rafabravo.wordpress.com/2016/10/07/piramide-ebhc-5-0/>

Piramidearen goialdean dauden baliabideek, eskuragarri eta eguneratuta egonez gero, eraginkorragoak izan beharko lukete profesional sanitarioentzat, baina kontuan izan behar da hau: batetik, informazio-premia jakin bat dugunean, ez dugu alde aurretik jakiten piramidearen zein maila zehatzetan lortuko diren emaitzarik onenak. Bestetik, piramidearen goiko mailetan kokatutako edozein emaitza gutxiago eguneratuta egon ohi da edo osatu gabe egon daiteke. Izan ere, dagoen informaziorik berriena sartzeak denbora asko eskatzen du<sup>3,4</sup>.

2011n, **Medikamentuen informazio iturriak** INFAC buletina argitaratu zen profesional sanitarioentzat. Argitalpen horretan, zenbait esteka eskaini ziren medikamentuei buruzko informazioa lortzeko; informazio fidagarria eta ebidentzian oinarritutako medikuntzaren irizpideekin bat datorrena<sup>5</sup>. Baina orduko esteketako batzuk jada ez daude erabilgarri edo aldatu egin dira, eta beste informazio-iturri batzuk daude. Gainera, gaur egun, eskuragarri daude aurkikuntza-tresnak (Discovery Tools), zeinek ahalbidetzen baitute, batetik, kontsulta-gune bakar batetik liburutegi batean dauden baliabideen bilaketa bateratu bat egitea, eta, bestetik, zuzenean eskuratzea sarbide libreko artikulua eta liburutegia harpidedun den aldizkari eta liburu etako artikulua. 2011n bezala, estekak hautatzeko, irizpide batzuk ezarri dira: profesional sanitarioentzat erabilgarria izatea, Osasun Liburutegi Birtualaren bidez eskuragarri egotea edo Interneten sarbide librekoa izatea.

Buletinaren helburua da medikamentuen informazio-iturriak eguneratzea eta zabaltzea; hain zuzen ere, profesional sanitarioentzat erabilgarrienak direnak.


## AURKIKUNTZA-TRESNAK/DISCOVERY TOOLS

Horrela deitzen zaie informazioa berreskuratzekeko tresnei, zeinek aukera ematen baitute edukiak hainbat iturritan (datu-baseetan, aldizkarietan, liburu elektronikoetan...) bilatzeko, bilaketa bakar baten bidez eta kontsulta-gune bakar batetik.

Gainera, bilaketaren emaitzak aukera ematen du lortutako erregistroen testu osoa ikusteko eta deskargatzeko, edo dokumentua beste liburutegi batetik eskuratu ahal izateko eskaera egiteko, baldin eta bilaketa egiteko erabiltzen den liburutegi birtualak baliabidea kontratatuta ez badauka.

## Topa

Aurkikuntza-tresna bat da, Euskal Osasun Sistemako profesionalentzat eta, oro har, herritarrentzat eskuragarri dagoena. [Euskadiko Osasun Liburutegi Birtuala](#)ren webgunearen bidez sar daiteke, eta bateragarria da gailu mugikorrekin.



Tresna hau erabat irekia dago herritarrentzat lehen maila batean: edonork kontsulta ditzake tresnan indexatuta dauden Open Access dokumentu-funts guztiak (sarbide irekia). Nolanahi ere, Liburutegi Birtualetik kontratatutako baliabideen testu osoa eskuratzeko, OpenAthens-en bidez erregistratu behar da.

Aldi berean hainbat datu-base eta plataformatara sartuz egiten da bilaketa. Honela egin daiteke:

- Dokumentu jakin bat bilatzen bada, sartu, adibidez, DOI (Digital Object Identifier) edo PMID (PubMed Indexing Number) "artikulu-bilatzailea"n.
- Gai bati buruzko informazioa nahi izanez gero, gako-hitzak bilaketa-kutxan sartu eta, ondoren, iragazkiak erabili (hizkuntza, data...), emaitzak arazteko. Bilaketa sinpleak eta aurreratuak egiteko aukera ematen du.
- PICO egiturari jarraitu (pazienteak, esku-hartzea, konparazioa, emaitzak).

Halaber, bilaketaren emaitza [kudeatzaile bibliografiko](#) batera esporta daiteke.

### EUSKADIKO OSASUN LIBURUTEGI BIRTUALA



Euskadiko Osasun Liburutegi Birtuala Osasun Sailaren eta Osakidetzaeren liburutegiek osatzen duten zerbitzu-unitate bat da, eta honako hauek biltzen ditu:

- **Zerbitzuak**, Osakidetzaeren liburutegiak eta Osasun Sailekoak inplikaturik baitaude.
- **Hartzaileak**, Euskal Osasun Sistema osoari zerbitzua eman nahi diolako: Osasun Saila, Osakidetza, Osasun Ikerketako Institutuak (Bioaraba, Biobizkaia, Biogipuzkoa, Biosistemak) eta BIOEF Fundazioa.
- **Edukiak**, helburu duela Euskal Osasun Sistema osoko dokumentu-zerbitzuetarako eta informazio zientifikoko baliabideetarako sarbidea ematea.

## POINT OF CARE PLATAFORMAK

Point of Care tresnek hautatutako eta etengabe eguneratutako ebidentzia eskaintzen dute, arretagunean erabaki klinikoak hartzeko. Kategoria honetan sartzen dira, besteak beste, baliabide hauek: UpToDate eta DynaMed.

### UpToDate (Osasun Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea eta app-a eskuragarri dago)

Erabaki klinikoak hartzen laguntzeko tresna bat da, baldintza klinikoen arabera antolatutako informazioa eskaintzen duena. Informazio hori etengabe eguneratzen da, eta kalitatezko hainbat baliabideren informazioa laburbiltzen du. Kapitulu/laburpen bakoitzean egileen eta berrikusleen esperientzia eta interes-gatazkak agertzen dira.

MEDLINE-ko erreferentziak, elkarre zientifikoen gidak, irudiak eta abar biltzen ditu. Interakzio farmakologikoak, medikamentuen informazioa, pazienteentzako informazioa edo kalkulagailu medikoak bilatzeko ere erabil daiteke<sup>4</sup>.

Horretaz gain, pazienteentzako informazioa biltzen du, zeina oinarrizkoa (gaztelaniaz eskuragarria) edo zabalagoa (ingelesez bakarrik eskuragarria) izan baitaiteke.

### DynaMed (Osasun Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea eta app-a eskuragarri dago)

Erabaki klinikoak hartzen laguntzeko tresna da, eta espezialitatearen eta baldintza klinikoaren arabera antolatutako ebidentziaren laburpenak eskaintzen ditu. 5.200 argitalpen baino gehiago monitorizatzen ditu<sup>4</sup>.

Espezialitate medikoen, medikamentuen, interakzio farmakologikoen eta kalkulagailu medikoen arabera sailkatutako informazioa dago. Bilaketa librea egin daiteke, gaiaren arabera (Go to) edo gako-hitzaren arabera (Search for). Bilaketaren emaitzak algoritmoak, irudiak edo bideoak baditu, horiek ere emaitzen zerrendan agertzen dira.

## METABILATZAILEAK

Metabilatzaileak lineako tresnak dira, eta sarbide-puntu bakar batetik (bilaketa-kutxa batetik) aldi berean egiten dute bilaketa ebidentzian oinarritutako praktikarako garrantzitsuak diren hainbat baliabidetan. Berreskuratutako dokumentuak ebidentzia-mailen arabera antolatuta aurkezten dira. Metabilatzaileak dira, esate baterako, ACCESSSS, ClinicalKey eta TripPro.

### ACCESSSS (sarbide librea erregistratu ondoren)

Kanadako McMaster Unibertsitateak eskaintzen duen zerbitzua da eta erregistratu egin behar da (doan) erabili ahal izateko.

Zerbitzu honek erabaki klinikoak hartzeko baliagarria den ebidentzia eguneratua lortzen laguntzen du. Bilaketa bat egiten du, aldi berean, ebidentzian oinarritutako hainbat baliabidetan (online testuak, praktika klinikoaren gidak eta aurretik ebaluatutako aldizkarietako artikuluak).

Bilaketaren emaitzak hierarkikoki antolatuta agertzen dira, Haynes-en piramideko sailkapena erabiliz.

Posta elektronikoko bidezko alerta-sistema bat ere badu (evidence alerts). Alerta-sistema horrek, aurrez hauta daitezkeen intereseko arloei buruz berriki argitaratu eta aurrez ebaluatu diren artikuluei buruzko informazioa ematen du.

### ClinicalKey (Osasun Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea eta app-a eskuragarri dago)

Informazio klinikoa bilatzeko tresna bat da, espezialitate kliniko eta kirurgiko guztiak hartzen dituena. Elsevier argitaletxearen bildumako testu osoko edukietara sartzeko aukera ematen du.

Informazioa biltzen du askotariko iturrietatik: liburuak, aldizkariak, praktika klinikoaren gidak (adibidez, Fistera), medikamentuen fitxak, pazienteentzako fitxak eta datu-baseak (MEDLINE edo Clinical Trials kasu). Bio-medikuntzaren arloko Espainiako aldizkari nagusiak biltzen ditu.

## TripPro (Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea)

Metabilatzaile bat da, eta bilaketa egiten du ebidentzian oinarritutako sinopsietan, berrikuspen sistematikoen datu-baseetan, praktika klinikoaren gidetan, galdera klinikoaren eta erantzunen orrietan, kalitatezko lehen mailako ikerketako aldizkarietan eta pazienteentzako baliabideetan. Bilaketa sinple edo aurreratua egiteko aukera ematen du, edo galdera kliniko egituratuen PICO akronimoari jarraituz egin daiteke bilaketa.

Emaitzak kalitatearen, garrantziaren, argitalpen-dataren edo ospearean arabera sailkatzen dira. Sarbide librekoak direnak testu osoan kontsulta daitezke.

Erregistratu eta erabiltzaile-kontu bat sor daiteke, non espezialitate klinikoaren arloak edo erabiltzailearen intereseko gaiak adierazi ahal izango diren.

## DATU-BASEAK

### BERRIKUSPEN SISTEMATIKOAK

#### Cochrane Library (sarbide librea eta Osasun Liburutegi Birtualetik)

Cochrane Library edo Cochrane Liburutegia hainbat motatako ebidentzia independenteak dituzten datu-baseen bilduma bat da, osasunari buruzko erabakiak hartzen laguntzen duena. Cochrane Liburutegiak honako hauek biltzen ditu:

- Berrikuspen Sistematikoen Cochrane datu-basea (CDSR): Cochrane berrikuspenak eta Cochrane berrikuspenen protokoloak barne hartzen ditu, baita editorialak ere. Aldizka eguneratzen da.
- Entsegu kontrolatuen Cochrane Erregistro Zentrala (ZENTRALA)
- Cochrane erantzun klinikoak
- Kanpoko datu-baseen emaitzak dakartzan bilaketa federatua

Bilaketa sinpleak egin daitezke, gaika, edo aurreratuak (gako-hitz estandarizatuak edo PICO irizpideak erabilita).

Oinarritzko bilaketa bat egiten bada, emaitzen zerrenda bat lortzen da, fitxetan ikusten diren dokumentu-moten arabera egituratua dagoena. Lehenengo fitxa berrikuspen sistematikoei buruzkoa da. Besterik adierazi ezean, emaitzak garrantziaren arabera ordenatuta erakusten dira.

#### Epistemonikos "ezagutzea merezi duena": (sarbide librea)

Osasun-arloan erabakiak hartzeko berrikuspen sistematikoen eta beste ebidentzia zientifiko batzuen iturri nagusia da.

Datu-baseen informazioa biltzen du; besteak beste, honako hauena: Cochrane Database of Systematic Reviews, PubMed, Embase, CINAHL, PsycINFO, LILACS, The Campbell Collaboration online library, JBI Database of Systematic Reviews and Implementation Reports, EPPI-Centre Evidence Library.

Bilaketa aurreratuak ingelesez baino ezin dira egin.

Bilaketa ondo egituratuta badago, ebidentzia-matrize bat eman dezake emaitza gisa, hau da, taula bat, galdera bati erantzuten dioten berrikuspen sistematiko guztiak eta berrikuspen horietan sartutako azterketa guztiak zabalitzen dituena. Epistemonikos-en galdera jakin baterako dagoen informazio guztia bistartzeko modu bat da.

#### PROSPERO (sarbide librea)

Osasunaren eta gizarte-laguntzaren, ongizatearen, osasun publikoaren, hezkuntzaren, delinkuentziaren, justiziaren eta nazioarteko garapenaren eremuko berrikuspen sistematikoen nazioarteko erregistroa da, eta osasunarekin lotutako emaitzak dauzka. Helburu du berrikuspen sistematikoen zerrenda osoa ematea (argitaratutakoena eta lantzen ari direnena), bikoiztasunak saihesteko eta informazio-alborapena murrizteko, egindako berrikuspena haren protokoloan aurreikusitakoarekin alderatzeko aukera ematen baitu.

## Beste batzuk

### MICROMEDEX (Osasun Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea eta app-a eskuragarri dago)

Micromedex Estatu Batuetako datu-base bat da, medikamentuei eta horiekin lotutako beste substantzia batzuei buruzko monografia zabalak dituena. Honako hauei buruzko informazio farmakologiko eguneratua du, zehatza eta erreferentziatua: posologia, farmakozinetika, kontraindikazioak, kontrako ondorioak, arreta neurriak, indikazioak (AEBn baimendutakoak edo baimendu gabeak), terapeutikan duen lekua, etab. Pazientearentzako informazio-orriak ere baditu, hainbat hizkuntzatan; besteak beste, espainieraz. Horrez gain, atal espezifiko bat ere badu, honako hauek kontsultatzeko: interakzioak —medikamentuen artekoak eta medikamentuen eta elikagaien artekoak—, kalkulagailu medikoak, zain barneko bateragarritasunari buruzko informazioa eta farmakoen konparazioa (aukera ematen du binaka konparatzeko marka komertzialak edo printzipio aktiboak, gomendatutako dosiak, kontrako efektuak edo kontraindikazioak). Halaber, galderen eta erantzunen fitxategi bat dago, *Drug consults* atalean.

### Pubmed (sarbide libre eta Osasun Liburutegi Birtualetik)

AEBko Medikuntzako Liburutegi Nazionalaren (NLM) datu-base bibliografiko nagusia da. Mundu osoko biomedikuntzaren esparruko 5.200 aldizkari baino gehiagotako artikulua biltzen ditu, 40 bat hizkuntzatan, baina batez ere ingelesez. Egunero eguneratzen da, eta sarbidea doakoa da.

Erregistroak indexatuta daude NLMko gako-hitzekin (MeSH).

### Embase (Osasun Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea)

Elsevier argitaletxeak sortutako datu-base bibliografikoa, biomedikuntzaren esparruko informazioa biltzen duena. Nazioarteko 7.600 aldizkari baino gehiagotako artikulua ditu, eta 600.000 biltzar-laburpen inguru. Erregistroak Emtree gako-hitzekin indexatuta daude.

Egunero eguneratzen da. Sarbidea ez da doakoa.

### CINAHL (Cumulative Index to Nursing and Allied Health Literature) (Osasun Liburutegi Birtualetik dauka sarbidea)

Erizaintzaren, fisioterapiaren, kirol-medikuntzaren, terapia okupazionalaren, podologiaren eta abarren inguruko aldizkako argitalpenak indexatzen ditu, baita liburuak, tesiak, biltzarren laburpenak eta abar ere. Kasu batzuetan, dokumentuen testu osorako sarbidea eskaintzen du. CINAHL gai-sarrerek informazioa bilatzen eta berreskuratzen laguntzen dute, eta "National Library of Medicine" liburutegiak erabiltzen duen MeSH egiturari jarraitzen diote. 1.314 aldizkari ditu, testu osoan.

## ESTEKA INTERESGARRIAK, SARBIDE LIBREKOAK

Medikamentuen fitxa teknikoak	
<a href="#">AEMPS-CIMA</a>	<a href="#">EMA (European Medicines Agency)</a>
<a href="#">FDA (Food and Drug Administration)</a>	
Buletin farmakoterapeutikoak eta zentzuzko erabilerarako gomendioak	
<a href="#">INFAC (Informazio Farmakoterapeutiko Buletina)</a>	<a href="#">BIT. Nafarroako informazio farmakoterapeutikoari buruzko buletina</a>
<a href="#">BTA. Boletín Terapéutico Andaluz</a>	<a href="#">BOLCAN (Boletín canario de uso racional del medicamento)</a>
<a href="#">Boletín Farmacoterapéutico de Castilla la Mancha</a>	<a href="#">Boletín de uso racional del medicamento del Servicio Cántabro de Salud</a>
<a href="#">Butlletí d'informació terapèutica del Departament de Salut de la Generalitat de Catalunya (azken buletina, 2021)</a>	<a href="#">El Comprimido (azken buletina, 2020)</a>
<a href="#">El ojo de Markov</a>	<a href="#">SACYLITE. Boletín de información terapéutica. Gaztela eta Leon (azken buletina, 2020)</a>
<a href="#">Australian Prescriber</a>	<a href="#">Therapeutics Letter</a>

Medikamentuen ebaluazioa	
"Aztertuko den medikamentu berria" ebaluazio-fitxak	Posizionamendu terapeutikoko txostenak. AEMPS
Scottish Medicines Consortium	NICE. National Institute for Health and Care Excellence
Medikamentuak zentzuz erabiltzeko gomendioak	
Medikamentuak zentzuz erabiltzeko gomendioak (Euskadi)	Essencial Salut
Praktika klinikoaren gidak (PKG)	
Osakidetzaren eta Osasun Sailaren Praktika klinikoaren gidak	GuíaSalud. Osasun Sistema Nazionaleko Praktika Klinikoaren Giden Liburutegia*
Fisterraren gida klinikoak*	American College of Physicians
SIGN. Scottish Intercollegiate Guidelines Network	Kanadako familia-medikuen elkargoa
NICE. National Institute for Health and Care Excellence	
Farmakozainketari eta medikamentuen segurtasunari buruzko informazioa	
Euskadiko Farmakozainketako buletina	AEMPSen segurtasuneko informazio-oharrak
AEMPSen medikamentuen segurtasunaren alertak	Medikamentuen erabilera segururako institutua (ISMP)
MHRA Drug Safety Update	FDA Drug Safety Communications
Entsegu klinikoak/Azterlanak	
REEC: Azterlan Klinikoen Espainiako Erregistroa (AEMPS)	BIFAP
International clinical trials registry platform (WHO)	Clinical Trials.gov (AEBko National Library of medicine liburutegiko entsegu klinikoen Erregistroa)
Interakzioak	
Micromedex**	Lexicomp (UpToDate)**
COVID-19 Drug Interactions (Liverpool-go Unibertsitatea)	HIV Drug Interactions (Liverpool-go Unibertsitatea)
EZAA interakzioak	Cancer Drugs Interactions (Liverpool-go Unibertsitatea)
Sendabelarrak (Memorial Sloan Kettering cancer center)	
Galdera kliniko zehatzei erantzuteko	
Preevid	Fisterra-e
Erabaki partekatuak hartzeko tresnak	
Decidir sobre (gencat)	PyDesalud-en laguntza-tresnak
Care that fits	Choosing Wisely
Med-Decs	The NNT
Haurdunaldia eta edoskitzaroa	
e-lactancia	Drugs in pregnancy and breastfeeding
Drugs in pregnancy and lactation	LactMed
Mother to baby. Haurdunaldiari buruzko informazioa	Specialist Pharmacy Service



Pediatria	
Espainiako Pediatria Elkarteak	Espainiako Lehen Mailako Arretako Pediatria Elkarteak
Evidencias en Pediatría	Pediatra informatizatuen talde independentea (GIPI)
American Academy of Pediatrics	
Txertoak	
EAEko txertaketen eskuliburua	Txertoak, EAEn
Espainiako Bakunologia Elkartearen webgunea	Txertoen ataria, Espainiako Pediatria Elkartearena
Txertoak, atzerrira bidaiatzeko	Centers for Disease Control and Prevention
WHO. International travel and health	The Green Book
Pazienteentzako informazioa	
i-botika fitxak	Osasun Eskola
Medikamentuen erabilera-orriak	Fisterra: pazienteentzako informazioa
GuíaSalud (Osasun Sistema Nazionalako Praktika Klinikoen Giden Liburutegia)	Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Elkarteak (SEFAP)
JAMA patient page*	Medline Plus
Mayo Clinic	
Egunean egoteko	
Fármacos en el km 0	El comprimido
El rincón de Sísifo	El blog de la guía terapéutica. Semfyc
AEMPS-en posta-zerrendak	Sano y salvo
Primum non nocere	Rafalafena
NICEren posta-zerrendak (Medicines awareness service)	

\* Aurrez erregistratu behar da.

\*\* OpenAthens bidez erregistratu behar da.

Medikamentuei buruzko beste informazio-iturri batzuetarako (hala nola The Medical Letter on Drugs and Therapeutics, Drug and Therapeutics Bulletin - DTB edo frantseseko La Revue Prescrire) harpidetu egin behar da; profesional sanitarioek MIEZi egin diezaiokeete eskaera, helbide elektronikoa honetara idatzita: [cevime4-san@euskadi.eus](mailto:cevime4-san@euskadi.eus).

## ESKERRAK EMATEA

Eskerrak eman nahi dizkiegu Eukene Ansuategi Zengotitabengoa Osakidetzako Liburutegi Birtualeko zerbitzaburuari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko liburutegiko teknikari Elena Revilla López eta Arantza Romano Igartuari, testua berrikustegatik eta iruzkin eta iradokizun egokiak egiteagatik.



«INFAC buletina argitalpen elektroniko bat da, eta EAEko osasun profesionalei dohain banatzen da. Buletin honen helburua medikamentuen erabilera arrazionala sustatzea da biztanleriaren osasun egoera hobetzeko».

## BIBLIOGRAFIA

1. Day RO, Snowden L. [Where to find information about drugs](#). Austr Prescr. 2016;39:88-95.
2. Fernández Oropesa C. [Búsqueda de la evidencia e información de medicamentos](#). Farmacéuticos de Atención Primaria. 2011;9(2):58-63
3. Alper BS, Haynes RB. [EBHC pyramid 5.0 for accessing preappraised evidence and guidance](#). Evid Based Med. 2016;21(4): 123-5.
4. Martín AJ, Ansuategi E, Úbeda MM, Cabello JB. [Documentos de evidencia. El sistema 5.0](#). En: Cabello Juan B, editor. Lectura crítica de la evidencia clínica, 2ª ed. Barcelona: Elsevier; 2022. p. 25-35.
5. [Fuentes de información sobre medicamentos](#). INFAC. 2011;19(6):33-40.

Berrikuspen bibliografikoaren data: 2023ko azaroa

Buletin hau horrela aipatu behar da: Non bilatu medikamentuei buruzko informazioa. INFAC. 2024;32(4):44-52.

Medikamentu berriek kontrako ondorioak dituztela susmatuz gero, oso-oso garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakojagoletza Unitateari jakinaraztea. OSABIDEn bitartez egin dezakezu jakinarazpena. Bestela, Osakidetzako intranetaren bidez, txartel horia beteaz edo AEMPS-en interneteko <https://www.notificaram.es>


Galdera, iradokizun edo parte-hartze lanak nori zuzendu: zure ESko farmazialariei edo MIEZi edo [infac@osakidetza.eus](mailto:infac@osakidetza.eus) e-mailari.

**Idazkuntza Batzordea:** Iñigo Aizpurua<sup>1</sup>, Iciar Alfonso<sup>2</sup>, Ainhoa Arana<sup>3</sup>, María Armendáriz<sup>3</sup>, Markel Brouard<sup>4</sup>, Saioa Domingo<sup>3</sup>, Maitane Elola<sup>5</sup>, Arritxu Etxebarria<sup>3</sup>, Julia Fernández<sup>2</sup>, Isabel Fontán<sup>3</sup>, Leire Gil<sup>3</sup>, Ana Isabel Giménez<sup>3</sup>, Juan José Iglesias<sup>4</sup>, Josune Iribar<sup>3</sup>, Nekane Jaio<sup>3</sup>, Itxasne Lekue<sup>3</sup>, M<sup>a</sup> José López<sup>1</sup>, Javier Martínez<sup>3</sup>, Mónica Martínez<sup>3</sup>, Teresa Morera<sup>6</sup>, Carmela Mozo<sup>3</sup>, Elena Olloquiegi<sup>3</sup>, Elena Ruiz de Velasco<sup>3</sup>, Amaia Sagastibelza<sup>7</sup>, Rita Sainz de Rozas<sup>3</sup>, Inés San José<sup>3</sup>, Maitane Umerez<sup>3</sup>, Elena Valverde<sup>3</sup>, Miren Zubillaga<sup>4</sup>.

1. CEVIMEko farmazialaria; 2. Farmakologoa klinikoa; 3. Lehen mailako farmazialaria; 4. Familiako medikua; 5. Barne medikuntzako medikua; 6. Farmakologiako irakaslea (EHU); 7. Lehen mailako pediatra.



<http://www.euskadi.eus/informacion/boletin-infac/web01-a2cevime/es/>

 Erabat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

